

ERABAKIA, 2016ko uztailaren 11koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, 2016ko apirilaren 15eko Gerentearen erabaki bidez deitutako "SGIkerreko goi mailako teknikaria -3. babes maila biologikoa" izeneko lan-poltsa sortzeko hautaketa-prozesuan onartuak eta baztertuak izan diren hautagaien behin betiko zerrenda onartzeko

Gerentearen 2016ko apirilaren 15eko erabaki bidez "SGIkerreko goi mailako teknikaria -3. babes maila biologikoa" izeneko lan-poltsa sortzeko hautaketa-prozesua deitu zen eta erabaki horren eranskinean deialdi hori arautuko duten oinarriak jaso ziren.

2016ko ekainaren 23an onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda argitaratu zen. Zerrenda horri erreklamazioak egiteko epea bukatu ondoren, erreklamazioak aztertu eta onartutako erreklamazioek eragindako aldaketak egin dira.

Arestian adierazitakoagatik eta errektorearen 2013ko urtarrilaren 30eko erabakiaren bidez (2013ko otsailaren 13ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- "SGIkerreko goi mailako teknikaria -3. babes maila biologikoa" izeneko lan-poltsa sortzeko hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko erantsitako zerrenda onartzea.

Lehiakideak hautaketa-prozesuetan behin betiko onartzeak lehiakideek prozesu horietan eskatzen diren baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela ulertzea dakar, lehiakideek aurkeztutako eskaeretan egiazkotzat aitortu dituzten eta eman dituzten datuen arabera. Edonola ere, lehiakideen behin betiko onarpena 9.2 oinarrian adierazitakoari kalterik egiteke ulertuko da.

Bigarrena.- Erabaki hau UPV/EHUK horretarako prestatutako web orrian (<http://www.ehu.eus/eu/web/azp/deialdiak>) argitaratzeko agindua ematea.

Hirugarrena.- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, baina aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahalko zaio Gerentzia honi, hilabeteko epean, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko administrazio-azietako epaitegietan, bi hilabeteko epean. Bi epeak erabakia Deialdian jartzen dituen tokietan argitaratu eta biharamunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2016ko uztailaren 11n

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia
(2013ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/EHUKO GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteché

